

4.2. Gaiaren lanketa

> Ipuin berri bat sortzen



- Txano Gorritxo: bertsio berri bat
  - Joxeren ipuina

# Txano Gorritxo



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Bada Bertosoko baserrian Francoise izeneko mutiko bihurri eta txiki bat. Oso pozik bizi da bere gurasoekin.

Mutil bihurri honi denek "Gorritxo" esaten diote, izan ere, beti darama bere amamak egindako jertse gorri bat.

Basoko etxe dotore eta handi batean bizi da.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina



Ama Tomaxa sukaldari trebea da eta asteen behin mermelada gaileta goxoak egiten ditu.

Gaur, amak sukaldara deitu du Gorritxo:

– Gorritxo, amamari eramateko gailetak egin ditut. Eramango dizkiozu?-galdetu du amak.

– Noski! Bizikletaz joango naiz.

Amama baserri-auzo berean bizi da; Takolon.

## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Gorritxok poliki-poliki egin du amamaren etxerako bidea; basoko animaliak begiratu.

Hain da baso polita: zuhaitzak alde guztietan, txoriak txio-txio kantari.

Gorritxok handia denean, nekazaria izan nahi du.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen




#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

##### • Joxeren ipuina

Bat-batean Otsoko ikusi du. Basoan bizi da eta oso-oso, baina oso bihurria da.

- Zer daukazu bizikletako otartxoan? -galdetu du Otsokok.
- Amamarentzako gailetak dira. Amak egiten ditu eta munduko goxoenak dira.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen




#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

##### • Joxeren ipuina

– Bada azkar joan zaitez, amamaren siesta ordua da-eta. -esan du Otsokok umoretsu.

Baina, Otsokok maltzurkeria bat pentsatu du: Amamaren etxera Gorritxo baino lehenago iritsi, amamaren arropa jantzi eta gailetak jan; bai ideia bikaina.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Zitzu bizian joan da Otsoko amama Juanitaren etxera. Amama etxe txiki batean bizi da basoaren erdian.

Otsoko heldu denean, amama egurra mozten ari da; bai langile fina gure Juanita!

Otsokok ezustean harrapatu du amama eta patata-zaku batean sartu du.



## 4.2. Gaiaren lanketa


### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Otsoko amamaren etxera sartu da, honen arropak jantzi ditu eta ohean sartu da Tomaxaren gaileta goxoekin amets egiteko prest.





## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Azkenean, iritsi da Gorritxo amamaren etxera; Otsoko leihoan dago zain.

Gorritxok atea jo du:

- Amama, Gorritxo naiz.
- Kaixo, laztana! Sartu-sartu atea zabalik dago -erantzun du Otsokok ahots fin-finarekin.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

##### • Joxeren ipuina

Gorritxo asko harritu da amama ikusi duenean, arraro sumatu du amama Juanita.

- Amama, amak egindako gailetak ekarri ditut -esan du Gorritxok.
- Oso ondo, goseak nago-eta.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen




#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

##### • Joxeren ipuina

Baina, Gorritxo ez dago ziur eta galdexka hasi da:

- Ene, amama, zeinen belarri handiak dituzun!
- Zu hobeto entzuteko.
  
- Ene, amama, zeinen begi handiak dituzun!
- Zu hobeto ikusteko.
  
- Ene, amama, zeinen sudur handia duzun!
- Zu hobeto usaintzeko.
  
- Ene, amama, zeinen esku handiak dituzun!
- Zu honeto besarkatzeko.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

##### • Joxeren ipuina

- Ene, amama, zeinen aho handia duzun!
- Amatxo Tomasaren mermelada gailetak oso-osorik jateko!



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Gorritxo beldurtu egin da eta oihuka irten da amamaren etxetik.

– Lagundu, mesedez! Lagundu Otsokok amama jan du! Lagunduuuu...!



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Joxerrak, amama Juanitaren bizilagunak, Gorritxoren oihuak entzun ditu eta korrika joan da Juanitaren etxera.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Otsokok, Joxerra ikusi duenean, beldur-beldur eginda, ziztu bizian ospa egin du.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen




#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Momentu horretan, Gorritxok amama Juanita ikusi du patata-zakuaren barruan eta laguntzera joan da.

Amama benetan beldurtuta dago.





## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Baina, istorio gehienetan bezala, gaurkoan ere bukaera polita eduki dugu:

Amamak txokolate beroa prestatu du eta Tomaxaren gailtekin bapo egin arte jan dute.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina



Gero, Gorritxok harrikoa egin du, Joxerrak egurra moztu du eta amama Juanitak Gorritxoren bizikleta konpondu du, bidean apurtu egin zaiolako.

Eta, Otsoko? Non dago Otsoko?



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen




### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat


- Joxeren ipuina

Baina, zer gertatu da Otsokorekin?


**Aukeratu bukaera!**



Barregarria



Harrigarria



Beldurgarria

## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Otsokok korrika egiten jarraitu zuen. Korrika egiten ari zela abesti bat asmatu zuen: "Kaixo, Txano Gorritxo".

Abestia arrakastatsua izan zen. Orain Otsoko artista da eta kontzertuak ematen ditu.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Otsokok korrika egiten jarraitu zuen. Gelditu zenean, pastel goxoetan pentsatu zuen.

Gaur egun, goxotegi baten jabea da. Pastel goxo-goxoak egiten ditu.



## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Ipuin berri bat sortzen



#### - Txano Gorritxo: bertsio berri bat

- Joxeren ipuina

Otsokok korrika egiten jarraitu zuen. Oso urrutira korrika egin zuen eta...

Gelditu zenean, badakizu non zegoen?

**Zure atzean!!**

